

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

3242

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 4koa, Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legeak sortutako Balorazio Batzordea osatzen duten pertsonen nortasuna jendaurrean jartzen duena.

Uztailaren 28ko 12/2016 Legeak (apirilaren 5eko 5/2019 Legeak aldatutakoak) Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak aitortzeko eta horiei erreparazioa egiteko prozedura arautzen du, eta haren 16. artikulua Balorazio Batzorde bat sortzen du, baloratu eta proposatzeko eginkizunak izango dituen.

Lege horren 17.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira Balorazio Batzordeko kide:

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendaria.

Giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiaren edo sailburuordetzaren titullarrak izendatutako hiru pertsona, non haietako bat Zuzenbide penaleko legelari espezializatua izango baita, beste batek esperientzia izango baitu biktimen arloan, eta hirugarrena legeak hartzen duen garaian espezializatutako historialaria izango baita.

Lege honek arautzen duen gaian aditu diren hiru pertsona, haietako bat gizarte zibilaren ordezkaria izango dena, giza eskubideen jarraipena egin behar duen Eusko Legebiltzarreko batzordeak izendatuak.

Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak izendatutako bi auzitegi-peritu eta psikologo bat, denak ala denak esperientziadunak biktimen arloan.

Batzordeko idazkari teknikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako langile bat (Zuzenbidean lizentziatutako teknikaria) izan beharko da, hitzarekin baina botorik gabe, giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiak edo sailburuordetzak proposatuta.

Horrekin lotuta, 12/2013 Legearen 17.3 artikulua arabera, Balorazio Batzordeko kide titularren eta ordezkoen identitatea giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularren ebazpenaren bidez argitaratuko da. Hori, Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren Sailburuordetzaren ardura da.

Erakunde eta organo egokiek Legearen 17. artikuluan aipatzen diren pertsonak izendatu dituzte. Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Uztailaren 28ko 12/2016 Legearen 17.1 artikuluan ezartzen den Balorazio Batzordea osatzen duten titularren eta ordezkoen nortasuna jendaurrean azaltzea. Honako hauek izango dira:

Titularra: Ainhoa Zugasti Bilbao andrea, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako zuzendaria.

Ordezkoa: Alberto Alonso Martín jauna, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria.

Titularra: Jon Mirena Landa jauna, zigor-zuzenbideko jurista espezializatua.

Ordezkoa: Enara Garro andrea, zigor-zuzenbideko jurista espezializatua.

Titularra: Sabino Ormazabal jauna, biktimen gaian aditua.

Ordezkoa: Adrián Gurpegui jauna, biktimen gaian aditua.

Titularra: Luis Salas jauna, historialaria.

Ordezkoa: Jon Penche jauna, historialaria.

Titularra: Juana Balmaseda andrea, Lege honetan arautzen den gaian aditua.

Ordezkoa: Felipe Gómez jauna, Lege honetan arautzen den gaian aditua.

Titularra: Jaime Tapia jauna, Lege honetan arautzen den gaian aditua.

Ordezkoa: Josu Oskoz jauna, Lege honetan arautzen den gaian aditua.

Titularra: Francisco Etxebarria jauna, Lege honetan arautzen den gaian aditua, gizarte zibila ordezkatzuz.

Ordezkoa: Miguel Ángel Navarro jauna, Lege honetan arautzen den gaian aditua, gizarte zibila ordezkatzuz.

Idazkaritza teknikoa: Nora Onaindia andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikaria.

Postua hutsik badago, titularra ez badago, gaixo badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Maite Gay izango da ordezkoa.

Bigarrena.— Ondorerik gabe uztea Batzordeko kideen izendapena, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkari nagusiaren 2018ko ekainaren 12ko Ebazpenaren bidez egindakoa (2018ko ekainaren 19ko EHAA, 177. zk.), biktimen gaian esperientzia duten eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak izendatu dituen eta izendapen-prozeduran dauden pertsonak salbu.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 4a.

Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren sailburuordea,
MARÍA ARRITOKIETA MARAÑÓN BASARTE.